Ikusten denez, Ikaslan Gipuzkoak sustrai sendoak ditu eta beste hainbat urte betetzea opa dizkiot.

agentes sociales relacionados con la formación profesional; desarrolla proyectos europeos y lleva a cabo proyectos y colaboraciones con centros educativos foráneos.

Pero también tenemos nuestros retos en ese proceso de mejora continua. Por ejemplo, desarrollar metodologías didácticas eficaces en el aula, que una gran proporción de nuestro profesorado esté alfabetizado en diversas lenguas extranjeras, trabajar con ahínco en el desarrollo de procesos innovadores con empresas pequeñas, etc.

Por lo tanto, es evidente que Ikaslan Gipuzkoa se asienta sobre raíces muy firmes y le deseo que cumpla otros tantos años.

**"Azken urte hauetako helburu nagusia martxan genituen proiektuak sendotzea izan da**

**El objetivo fundamental de los últimos años ha sido reforzar los proyectos que teníamos en marcha"**





### →INTERNAZIONALIZAZIOA

**Ikasleen mugikortasuna:**

- 4 urte hauetan bekadun ikasle kopuruaren eboluzioari dagokionez hazten joan da, eta LPak Europan egin dituzten ikasleen portzentaien zifrak hartzen baditugu, ikasle kopuru totalarekin alderatuz, Gipuzkoa nabarmentzen da, %10.9 IKASLAN GIPUZKOAko zentro guztiak 2011/2012 ikasturtean kontuan hartuz. Zifra hau Europako batzordeak helburu bezala markatu duena da, gure lurraldea izan delarik lortu duen bakanetako bat, bakarra ez bada.
- Gaur egun bekak eskaintzen ditugu enpresa edo formazio proiekturen bat duten tituludun ikasleendako, eta Europan 3 hilabeteko egonaldia egin behar dute garatzen edota lan teknika berriak ikasten.
- Halaber, 2012/13 ikasturte honetan 2 hitzarmen sinatu ditugu ikasleen mugikortasuna lantzeko, bat Pragako metropolitar Unibertsitatearekin eta bestea Istanbuleko hiriarekin, hauetako ordezkari batzuek laster bisitatuko gaituztelarik.

**Irakasleen mugikortasuna:**

- 2009an abiatutako estrategiaren inguruan urtero bataz besteko 75 irakaslek, herrialde desberdinetan berrikuntzaren inguruan eta arlo teknologikoan, zein kudeaketa, formakuntza eta IKT mailetan, praktika onak eta erreferentzialak ezagutzeko izaten dute aukera.

### →PROIEKTU INTERNAZIONALAK

Baita ere azpimarratzekoa da Ikaslaneko zentroen kopurua, beste herrialde batzuetako zentro, enpresa, unibertsitate, zentro teknologikoekin harremana dute eta elkarlaneko proiektu ezberdinetan lanean ari dira.

### →LATINOAMERIKAREKIN ELKARLANEAN

Orain dela urte batzuetatik herrialde latinoamerikarrekin elkarlanean ari gara, ikasle zein irakasleei area ezberdinetako formakuntza emanez, kurtso honetan eta hurrengoan zehar txiletar ikasleak hartuko ditugu, gure zentroetan postgraduak egin ditzaten.

### →INTERNACIONALIZACIÓN

**Movilidad del alumnado:**

- Estos 4 últimos años la evolución del número de alumnos becados ha ido en aumento y si observamos los porcentajes de alumnos que han realizado sus PL en Europa, con relación al número total de alumnos, Gipuzkoa destaca con un 10,9% de alumnos -analizados todos los centros de IKASLAN GIPUZKOA en el curso 2011-2012-. Ese porcentaje es el porcentaje fijado como objetivo por la Comisión Europea y nuestro territorio es uno de los pocos que lo ha logrado, si no el único.
- Actualmente ofrecemos becas a alumnos titulados que tengan alguna empresa o proyecto formativo y en esa estancia de tres meses en Europa deben desarrollar o aprender técnicas laborales nuevas.
- Asimismo, en el curso 2012/2013 hemos firmado dos convenios para fomentar la movilidad del alumnado. Uno con la Universidad Metropolitana de Praga y el otro con la Ciudad de Estambul. Representantes de ambas nos visitarán en breve.

**Movilidad del profesorado:**

- Gracias a la estrategia puesta en marcha en 2009, cada año un promedio de 75 profesores tienen la oportunidad de viajar a otros países a realizar prácticas de excelencia y referencia sobre innovación y el ámbito tecnológico, gestión, formación y TICs.

### →PROYECTOS INTERNACIONALES

Destacar también que la mayoría de los centros de Ikaslan mantienen relaciones y desarrollan diversos proyectos de cooperación con centros, empresas, universidades y centros tecnológicos de otros países.

### →COOPERACIÓN CON LATINOAMÉRICA

Desde hace unos años colaboramos con países latinoamericanos ofreciendo formación sobre áreas diversas a alumnos y a profesores. Este curso, y el que viene, recibiremos a alumnos chilenos para que realicen estudios de postgrado en nuestros centros.

**MAITE AROCENA**
Ikaslan Gipuzkoa

# “IKASLAN, zuzendarien elkartea izateaz gain, lagunen elkartea da

## Ikaslan, además de asociación de directores, es una asociación de amigos”



*“- Zuri IKASLAN esaten badizugu, zer da burura etortzen zaizun lehenengo gauza?*
*- Ustet, moto bat zuen aldizkari bat banatu zigutela ikasturte bukaeran…”*

Garai hartan Usurbileko ikastetxeko zuzendari zen Iñaki Mujika eta ikasleen jarraipena egiteaz arduratzen zen Arantxa Vitoriaren aurrean emandako erantzun hark, Ikaslanen lanean hasteko atea ireki zidala uste izan dut beti. 1998. urtea zen.

Nere amak kotxez eraman ninduen elkarrizketa hartatik oso gustura atera nintzen… ikasketa bukatu berriak nituen eta lana eskaintzen zidaten. Zer gehiago behar nuen? Momentu hartan ezinezkoa zen Ikaslanek emango zidan guztiaren ideia bat egitea…

Leontxok artikulua idazteko eskatu zidanean, 20. urteurrenaren inguruan argitaratuko genuen aldizkariko artikulu gehienek Ikaslanek Lanbide Heziketari emandako bultzada eta onurak jasoko zituztela pentsatu nuen. Niri, gertuagokoak kontatzea tokatzen zitzaidan, hainbeste egitasmo eta kudeaketa aurrera eramateak suposatu duen islada txiki bat gogora ekartzea …

Luisiren eskutik bulegoko idazkaritzaren erreleboa hartu nuenean, Usurbileko bulego txiki batean kokatu ginen Mikel eta biok. Ez genuen telefono fijorik, dei asko ez genituelako ez egingo, ez eta jasoko esan baitziguten… Gaur egungo zortzi mobilen bateriak elkartuko bagenitu, Ikaslaneko ibilbide “telefonikoari” hasera eman nionean genuen telefonoaren bateria bat osatuko genuke. Ikastetxeek, internet izan arren, ez zuten Hezkuntza Sailetik sortu zieten emaila begiratzeko ohitura eta beharrik. Deialdi eta komunikazio guztiak Fax-ez egin behar izaten genituen… ia goiz erdia galtzen genuelarik makinaren aurrean ezer txukuna jakinarazi nahi genuen bakoitzean!

**Garai hartan oraindik Ikaslan ez zuten ia ikastetxeetako idazkaritzetan ezagutzen**, baina hala ere, beti izaten ziren gure deiak oso ongi artatuak.

Ikaslanen zuzendaritza beti eraginkorra izan dela eta, Juntatik gai ezberdin asko lantzen ziren bitartean, beraien erabakiak aurrera eramateak suposatzen zuten lanak egiteaz gain, gure bulegotik Europatik etortzen hasi ziren dirulaguntzak kudeatzen ematen genuen denbora gehien: FSE ikastaroak bezala ezagutzen genituenak.

Alboko bulegoan aldiz, Lanbide Heziketako irudia eta oinarria aldatzen lagunduko zuen egitasmoetako bat martxan jarria zegoen, SAREKA kalitate proiektua. Ikaslaneko egitasmoa izanik, haren kudeaketaren jarraipena egiten ere laguntzen genuelarik.

*“- Si te decimos IKASLAN, ¿qué es lo primero que te viene a la cabeza?*
*- Creo que nos repartieron una revista con una moto a finales de curso…”*

Siempre he pensado que esa respuesta que di a Iñaki Mujika, por aquel entonces director del centro de Usurbil y a Arantxa Vitoria, responsable del seguimiento de los alumnos, me abrió las puertas para empezar a trabajar en Ikaslan. Era el año 1998.

Mi madre me llevó en coche a la entrevista y salí muy contenta… Acababa de terminar los estudios y me ofrecían un empleo. ¿Qué más podía pedir? En ese momento era imposible hacerse una idea de todo lo que me iba a dar Ikaslan…

Cuando Leontxo me pidió que escribiera un artículo pensé que la mayoría de los artículos de la revista publicada con motivo del 20º aniversario tratarían sobre el impulso y las aportaciones positivas que Ikaslan ha dado a la Formación Profesional. A mí me tocaría contar las cosas desde dentro, ofrecer una especie de testimonio sobre qué ha supuesto llevar a cabo tantos proyectos y gestiones…

Cuando cogí el relevo de la secretaría de la oficina de manos de Luisi, Mikel y yo nos instalamos en una oficina pequeña de Usurbil. No teníamos teléfono fijo porque nos dijeron que no haríamos ni recibiríamos muchas llamadas… Si juntáramos las baterías de ocho móviles actuales tendríamos la batería del teléfono que teníamos cuando iniciamos el “recorrido telefónico” de Ikaslan. Los centros, aunque disponían de Internet, no tenían costumbre ni necesidad de mirar el correo electrónico que les habían creado desde el Departamento de Educación. Todas las convocatorias y comunicaciones tenían que ser por Fax… ¡Cada vez que deseábamos enviar algo decente perdíamos prácticamente media mañana delante de la máquina!

**Por aquel entonces en las secretarías de los centros aún no conocían demasiado Ikaslan** pero, sin embargo, siempre atendían nuestras llamadas muy amablemente.

Como la dirección de Ikaslan siempre ha sido muy eficaz y la Junta trataba muchos temas distintos, en nuestra oficina pasábamos casi todo el tiempo haciendo todo el trabajo necesario para materializar las decisiones adoptadas en la Junta y, además, gestionando las subvenciones que empezaban a llegar de Europa: los que conocíamos como cursos FSE.

En la oficina contigua, por su parte, habían puesto en marcha uno de los proyectos que ayudarían a cambiar la imagen y la base de la Formación Profesional, es decir, el proyecto de calidad SAREKA. Y como era un proyecto de Ikaslan debíamos contribuir también a hacer un seguimiento de su gestión.

Ikaslanen eguneroko martxa markatzen hasiak ginen ... Gaur egun lau pertsona gaude goitik behera jantzitako bulego batean lanean.

Hasierako egun haiek deskribatu ditudan moduan ondorengo 15 urteak deskribitzeko ez artikulu, baizik liburu bat beharko nukela eta... deskribapenak alde batetara utzi, eta sentsazioetara bira egingo dut oraingo honetan. Izan ere, hainbeste inteligentzia emozionaleko ikastaro kudeatzeak ere zerbait ona erakutsiko al zigun !

Ikaslan, zuzendarien elkartea izateaz gain, lagunen elkartea dela esatera ausartuko naiz hitz hauen bidez. Zuzendariei, Ikaslaneko bazkideei, elkarteko partaide izateak pertsonalki eman dizkien segurtasun eta adiskidetasuna aipatu nahi nituzke. Askotan ikusi izan ditut beraien arazoak asanbladetan mahai gainera ateratzen, ikastetxeetako gorabeherak bereganatzen dituzten neurrian, arazoak ere aintzakotzat hartzen dituztela eta, laguntza eskatuaz. Denon artean tira eginda gurdia errazago mugitzen dela eta, zuzendariek beti jaso dute Ikaslaneko laguntza; bai zuzendaritzarena, baita guk bulegotik emandakoa ere (edo behintzat hori espero det!). Badakit, telefonoaren bestaldetik ere askotan sentimenduak jasotzen direlako, zuzendarientzako erreminta eraginkor eta segurua bihurtu dela Ikaslan, arazo orokorrei aurre egiteko oso baliagarria gertatzen zaielarik.

Baina laguntasuna ez da gogor lan egiten bakarrik irabazten; une onak elkarrekin pasatuaz estutzen dira lokarriak. Zorionez, horretarako ere aukera ugari izaten ditugu Ikaslanen, normalean, ondo egindako lanaren ordaina izaten delarik. Benetako lagun taldea osatzen dute momentu horietan zuzendariek.



Maite Arocena
Luisirekin
1999an

Bukatzen joateko, esan nahiko nuke, orain arte aipatutako lanaren dinamika eta adiskidetasuna elkartzen baditugu, nere eguneroko lanaren emaitza jasoko genukela. Bai! Hala da! Ez da aldizkarian aterako dela eta "peloteoa" egiteagatik! Ikaslan Gipuzkoako bulegoan beti izan dugu (eta dugu) giro ona, lanak ateratzeko horrek suposatzen duen guztiarekin.

Behin baino gehiagotan entzun dugu bulegoan "eskerrak hor zaudeten !". Baina, nik, lerro hauetatik eman zaidan aukera aprobetxatuaz, esaldiari buelta eman nahi nioke. Eskerrik asko zuei, Ikaslanen inguruan lan egin duzuen, eta egiten duzuen guztioi; kudeatzaile lankide, bazkide, juntakide, ikastetxetako idazkaritza, erakundetako langile etab. luze-luze bati, denen artean hainbeste urtetan lortu baitugu elkartea aurrera ateratzea, gure lanen emaitzak harrotasunez jasotzea eta nere kasu pertsonalean, lanera egunero gustura etortzea.

* *Oharra: artikuluaren egilean, Maite Arocena beharrean, Maite Ikaslan jarri beharko nuke, zuetako askorentzat, hala bainaiz eta izaten jarraitu nahi dudalako...*

*Nota: como autora del artículo debería aparecer Maite Ikaslan en lugar de Maite Arocena, porque así soy, y así deseo seguir siendo, para muchos de vosotros...*

Se empezaba a definir la actividad diaria de Ikaslan... Actualmente trabajamos cuatro personas, en una oficina totalmente equipada.

Para describir los 15 años siguientes tal y como he hecho con esos primeros pasos no me basta con un artículo, necesitaría un libro..., por lo que dejaré las descripciones a un lado y me centraré en las sensaciones. ¡Y es que también hemos sacado algo bueno de gestionar tantos cursos de inteligencia emocional!

En este artículo me atrevo a decir que Ikaslan, además de asociación de directores, es una asociación de amigos. Quisiera destacar la seguridad y amistad que el hecho de pertenecer a la asociación ha aportado, a nivel personal, a los directores y miembros de Ikaslan. En muchas asambleas les he visto poner sus problemas sobre la mesa y pedir ayuda, ya que a medida que asimilaban los pormenores de los centros asumían también los problemas a los que se enfrentaban. Es más fácil mover el carro si tiramos entre todos y los directores siempre han recibido la ayuda de Ikaslan; tanto de la directiva como también de nuestra oficina (¡o eso espero al menos!). A menudo desde el otro lado de la línea telefónica también nos hacen llegar sentimientos y, por eso, sé que Ikaslan se ha convertido en una herramienta eficaz y segura para los directores y les resulta muy útil para hacer frente a problemas generales.

Pero la amistad no se logra únicamente trabajando duro; los vínculos se estrechan compartiendo buenos momentos. Y afortunadamente también hemos tenido muchos de esos momentos en Ikaslan; normalmente suelen producirse como contrapartida a un trabajo bien hecho. En esos momentos, los directores conforman un auténtico grupo de amigos.

Para terminar, quería decir que si uniéramos la dinámica de trabajo y la amistad que he mencionado hasta ahora tendríamos como resultado mi actividad diaria. ¡Sí! ¡Así es! ¡No es por "peloteo" ni porque vaya a salir en la revista! En la oficina de Ikaslan Gipuzkoa siempre hemos tenido (y tenemos) muy buen ambiente, con todo lo que ello supone para sacar adelante el trabajo.

"¡Menos mal que estáis ahí!" es una frase que hemos escuchado en más de una ocasión en la oficina. Pero yo, aprovechando la oportunidad que me ofrecen estas líneas, deseo darle la vuelta. Gracias a vosotros, a todos quienes habéis trabajado y trabajáis en torno a Ikaslan; a compañeros gestores, miembros, junteros, secretarías de los centros, personal de las instituciones y un largo etcétera. En todos estos años, y entre todos, hemos logrado sacar adelante la asociación, ver con orgullo los resultados de nuestro trabajo y, en mi caso personal, que sea un placer ir a trabajar.

**Eskerrik asko Ikaslan Gipuzkoa eman didazun guztiarengatik!**

¡Gracias Ikaslan Gipuzkoa por todo lo que me has dado!



**"Krisi honetatik modu egokian ateratzeko, ezinbestekoa da punta-puntako formakunta eskaintzen jarraitzea**

**Debemos seguir formando adecuadamente a la población para salir fortalecidos y preparados de la situación de crisis actual"**




KEPA IBAÑEZ
IKASLAN ARABAko PRESIDENTEA

TOMAS MAGUREGI
IKASLAN BIZKAIAko PRESIDENTEA

HORRELAKO OSPAKIZUN BAT, HELBURU BIKOITZA BETETZEKO APROBETXATUKO DUGU, ALDE BATETIK IKASLAN ERAKUNDEAK IZAN DUEN IBILBIDEA GOGORATU ETA BESTETIK HEMENDIK AURRERA DITUEN ERRONKAK AIPATU ETA AURREIKUSTEN DUGUN ETORKIZUNA AZTERTU.

Hasiera batetan, horrelako erakunde baten beharra zalantzan ipini zen, Lanbide Heziketaren arloan, arazo eta gai espezifikoak lantzeko nahiko tresna zeudela uste zelako, are gehiago ikastetxe publikoak izanda.

Zein da IKASLANen helburua?

Administrazioarekin elkarkidetza? Ez ote gara geu ere administrazioa.

Eskubideak aldarrikatzeko eginda dago? Badira horretarako erakundeak eta elkarteak.

Sorreratik 20 urte betetetzen diren une hauetan, zalantzarik gabe hori guztia eta gehiago lortu dela lasai esan dezakegu.....

Urteetan zehar izan ditugun hezkuntzako agintariek, hiru IKASLANetako kideek euren alboan izan gaituzte, proiektu berriztaileak garatzeko orduan.

Gure esperientzia gehitu dugu Lanbide Heziketako Planak eratzeko orduan. Lanbide Heziketako eusko kontseiluak egin dituen titulu berrien sorreran, IKASLAN zerikusi handia izan du.

Profesionaltasun agiriak ezartzeko orduan, gure lana ezinbestekoa izan da, beraz gure lankidetza aipagarria izan dela esango dugu.

Hiru eskuldeetako erakundeen elkarlana goraipatu nahiko genuke. Denontzako kezkagarriak diren arlotan, bateratutako irizpideak defendatzeko esfortzua egin dugu betiere bakoitak duen nortasuna errespetatuz.

ESTA EFEMÉRIDES TIENE UN DOBLE COMPONENTE A NUESTRO JUICIO, POR UN LADO SE TRATA DE RECORDAR LA TRAYECTORIA DESARROLLADA POR IKASLAN DESDE SU ORIGEN Y POR OTRO PLASMAR LA PROYECCIÓN DEL FUTURO QUE AUGURAMOS A LA ORGANIZACIÓN.

La idea de asociar a Centros Públicos de Formación Profesional, fraguada en territorio guipuzcoano que posteriormente se desplegó por los Centros alaveses y recaló más tarde en Bizkaia, debió luchar en su origen con ciertas reticencias por entender que los Centros de carácter público ya disponían de herramientas para trasladar cuestiones del ámbito de la FP.

¿Cuál es el objetivo de IKASLAN?...

¿interlocución con la Administración? Si somos administración.

¿Tiene un carácter reivindicativo? Ya hay mecanismos y organizaciones para ello.

Transcurridos estos 20 años de existencia de IKASLAN, podemos decir sin temor a equivocarnos que hemos hecho eso y mucho más....

Las administraciones educativas que sucesivamente nos han regido , han tenido a su lado a los tres IKASLANes para desplegar las mismas y aportar nuestra visión y experiencia. Así se han desarrollado los Planes de Formación Profesional. Nuestra aportación en el Consejo vasco de la Formación Profesional ha facilitado el desarrollo de los diferentes títulos. También la implantación de los Certificados de Profesionalidad han contado con nuestro mayor apoyo.

El trabajo coordinado entre las tres organizaciones de los tres territorios ha sido nuestra seña de identidad. Cada uno ha defendido su especificidad, pero hemos sido uno en los temas que nos inquietan por igual.



“Europa mailan Lanbide Heziketan erreferenteak diren herrialdetara begiratu behar dugu ikasteko.



Debemos mirar a Europa para alinearnos con los países más avanzados en el ámbito de la FP.”

Hau guztia helburu zehatz batekin, Euskal Lanbide Heziketa Publikoa, estatu zein europear mailan erreferentea bihurtzea eta lortu dugula esango genuke.

Lerro hauen bitartez, urteetan beraien esperientzia eskeini dituzten Zuzendari guztiei eskertu nahi diegu emandako lankidetza, batzuk Zuzendaritza Taldeetan parte-hartzeagatik eta oroar era batetan edo bestean lagundu duten guztiei denon mesederako izan baita.

Etorkizuna ezezaguna eta erronkaz josita dator.

Europa mailan Lanbide Heziketan erreferenteak diren herrialdetara begiratu behar dugu ikasteko.

Krisi aldi honetatik modu egoki batetan ateratzeko, ezinbestekoa da punta-puntako formakuntza eskeintzen jarraitzea eta bide batez gure enpresetako lehiakortasuna hobetzea.

Lanbide Heziketan dugun konfidantza berriztu behar dugu behar berrietara egokituz.

Aurrerantzean  lanean jarraituko dugu IKASLAN Gipuzkoak ospatzen duen urteurrena bezalako beste batzuk betetzeko.

Todo esto para conseguir entre todos, situar a la Formación Profesional Pública Vasca en un lugar de vanguardia a nivel estatal y nos atreveríamos a decir lo mismo a nivel europeo.

Nos gustaría agradecer a través de estas líneas a todos/as los Directores que a lo largo de estos años han aportado a la Organización su trabajo y dedicación en las Juntas Directivas correspondientes y a todos en general por entender que sumando salimos todos fortalecidos.

El futuro se presenta a partes iguales desconocido y retador.

Debemos mirar a Europa para alinearnos con los países más avanzados en el ámbito de la FP.

Debemos seguir formando adecuadamente a la población para salir fortalecidos y preparados de la situación de crisis actual y con ello mejorar la competitividad de nuestras empresas.

Debemos por lo tanto seguir confiando en la Formación Profesional de la que nos hemos dotado dándole un nuevo impulso y adecuándola a las nuevas necesidades.

Nos comprometemos a acometer la tarea y esperamos celebrar muchos aniversarios como el de IKASLAN Gipuzkoa.



JOSE IGNACIO HERNÁNDEZ
AICE – IZEA

# "Gure Lanbide Heziketa errendimendu handiko taldea da

# Nuestra Formación Profesional es un equipo de alto rendimiento"

IKASLANEN HOGEIGARREN URTEURRENA DELA ETA, ATSEGIN HANDIZ PARTE HARTUKO DUT HORREN OSPAKIZUNETAN, LERRO HAUEN BIDEZ.

Izan ere, atsegin handia da niretzat azken 20 urteotako oroitzapenak irudi bidez agertzea. Irudi gozoak betiere, Ikaslanek, Hetelek eta Aice-Izeak, hasieran Gipuzkoan eta gaur egun Euskal Herri osoan, egiten dugun elkarlan estua oroitarazten baitidate.

Elkarlanean dihardugu, halaber, Iparraldeko eta Nafarroako lankideekin, ikastetxeen arteko ikasle eta irakasleen elkartrukearen eta mugikortasunaren bidez.

Gure Lanbide Heziketaren lidergoak Estatuan ere izan du isla, eta LH-Enpresa proiektua da horren erakusgarri: berriz ere, Euskal Lanbide Heziketa bakarra (sare publikoak eta itunpeko sareak osatua) izan da arrakastaren protagonista.

Tknikak lagunduta, hainbat proiektu garatu ditugu: ProfEmpresa –Confebaskekin, Adegirekin, Cebekekin eta SEArekin batera–; LHko Zuzendarien Zubi Foroa; Hezkuntza Marketina; eta beste hainbat eta hainbat proiektu, 26 lanbide-familietako bakoitzarentzat, eta baita zeharkakoak ere, Lanbide Heziketa osoko pertsona guztien harreman- eta bizi-gaitasunak oinarri hartuta.

Euskal Lanbide Heziketa "herrialdeko marka" bat da. Hala onartu eta bereganatu dute 20 urte hauetan gurekin elkarlanean aritu diren administrazio eta erakunde publiko eta pribatuek. **Eta, neurri handi batean, Ikaslan izan da lorpen horren eragilea**.

Duela gutxi, Euskal Lanbide Heziketa Madrilgo Hezkuntza Ministeriora joan da, denok elkarrekin, gure "marka" aldarrikatzeko, benetako "know how-a" baita LOMCEren bidez aurre egin nahi dioten eskola-porrota deritzona saihesteko eta horren eraginak bideratzeko. Mezua honelako zerbait izan da: "Gure Lanbide Heziketa errendimendu handiko taldea da". Euskal enpresek eta gizarteak hala aitortu dute. Horregatik, gozamen hutsa da Ikaslaneko ikastetxeekin elkar hartuta lan egitea.

Zorionak!

ANTE EL VIGÉSIMO ANIVERSARIO DE IKASLAN TENGO EL VERDADERO PLACER DE PODER CONTRIBUIR A SU CELEBRACIÓN POR MEDIO DE ESTAS LÍNEAS.

Porque constituye un placer poder dejar que mis recuerdos de estos últimos 20 años se me presenten en forma de imágenes siempre gratas evocando la estrecha colaboración que en Gipuzkoa en un principio y en Euskadi-Euskal Herria en la actualidad, realizamos Ikaslan, Hetel y Aice-Izea.

Se realizan colaboraciones con nuestros colegas de Iparralde y de Nafarroa con intercambios y movilidades de alumnos y profesores entre los Centros.

También se plasma a nivel estatal el liderazgo de nuestra FP como se ha podido contrastar dentro del proyecto FP-Empresa en el que, de nuevo, ha sido una sola FP Vasca (integrada por la red pública y la red concertada) la protagonista de dicho éxito

Con el apoyo de Tknika, se despliegan actividades como Prof Empresa junto con Confebask, Adegi, Cebek y Sea, Foro Zubi de Directores de F.P., Marketing Educativo, y un sinfín de proyectos correspondientes a todas y cada una de las 26 familias profesionales así como transversales a las mismas centrándose en las competencias relacionales y vitales en general de todas las personas de la FP en su conjunto.

La Formación Profesional de Euskadi-Euskal Lanbide Heziketa es una "Marca de País" como lo han reconocido y adoptado todas las administraciones e instituciones públicas y privadas con las que hemos colaborado durante estos 20 años y en buena medida **Ikaslan ha sido artífice de dicho logro**.

Recientemente hemos acudido a Madrid la FP Vasca en bloque al Ministerio de Educación. para reivindicar nuestra "Marca" como un verdadero "Know How" de como evitar y en su caso canalizar los efectos del denominado fracaso escolar que pretende combatir la LOMCE. El mensaje ha sido algo similar a "Nuestra FP es un equipo de alto rendimiento", las empresas y la sociedad vasca en su conjunto así lo reconocen. Por eso es una gozada trabajar codo con codo con los centros de Ikaslan.

Zorionak!



**JON IARTZA**
HETEL-en Lehendakariordea eta Gipuzkoako arduraduna
Vicepresidente de HETEL y responsable en Gipuzkoa.

# "Lanbide Heziketa gure pasioa da

# La Formación Profesional es nuestra pasión"

"LHKOAK GARA" ETA LANBIDE HEZIKETA GURE PASIOA DA. HORREK ERRAZTU EGITEN DITU GURE ARTEKO HARREMANAK. NIRE USTEZ, HARRO EGON BEHAR DUGU LHKO IKASTETXE PUBLIKO ZEIN ITUNPEKO GUZTIEN ARTEKO LANKIDETZAZ. EUSKADIKO BEREIZGARRIA DA HORI.

Neure aldetik, eta HETELen izenean, eskerrak eman nahi dizuet elkarlanean jardun dugun urte hauetan IKASLAN Gipuzkoako arduradunengan aurkitu dudan adeitasunagatik eta haiekin ditudan harreman onengatik.

Arlo eta ekimen askotan aritu gara urte hauetan elkarlanean, besteak beste:

- Lehen, bigarren eta hirugarren Lanbide Heziketako Euskal Planen garapenean.
- Lanbide Heziketa sistema integratua sustatuz.
- LANEKI Elkartea eratu eta Lanbide Ekimena proiektua garatuz.
- HEZKUNTEK Elkartea sortuz, Iparraldearen garapena bultzatuz.
- Orokorrean Herri honen garapen sozio ekonomikoaren aldeko lana ahalik eta hoberen egiteko bidea errazteko ahaleginean.

Konpetentzia izan gara, konpetentzian eta kooperazioan aritu gara, elkarrekin lehian eta elkar laguntza emanez, baina beti Herri honetako Lanbide Heziketa goratzen eta berritzen. Eta geroari begira ere garbi dago zenbat eta elkarlan gehiago orduan eta gehiago goratuko dugula gure herriko Lanbide Heziketa.

IKASLAN Gipuzkoak eta HETELek bereizgarri batzuk konpartitzen ditugula esatera ausartuko naiz, agian hauexek garrantzizkoenak:

- Euskal Herriko Lanbide Heziketarekiko konpromezua eta irrika.
- Elkarte bakoitzak egindako lanari begira elkarrenganako errespetu eta errekonozimendua.
- Elkarte bietako pertsonenganako hurbiltasuna eta atsegintasuna.

Espero dut gure arteko harremanak onak izaten jarraitzea, gutxienez, datozen 20 urteetan.

ZORIONAK! eta Herri honen Lanbide Heziketa berritu eta goratu dezagun!

EL HECHO DE QUE "SOMOS DE FP" Y QUE LA FORMACIÓN PROFESIONAL ES NUESTRA PASIÓN, FACILITA LAS RELACIONES ENTRE NOSOTROS, CREO QUE DEBEMOS DE ESTAR ORGULLOSOS DE LA COLABORACIÓN ENTRE TODOS LOS CENTROS DE FP TANTO PÚBLICOS COMO CONCERTADOS, QUE EN EUSKADI MARCA LA DIFERENCIA.

Personalmente y en nombre de HETEL tengo que agradecer la sintonía y la buena relación con todos los responsables de IKASLAN Gipuzkoa con los que hemos colaborado durante estos años.

Durante todos estos años, hemos trabajado conjuntamente en muchos campos e iniciativas:

- Desarrollo del primer, segundo y tercer plan de la Formación Profesional Vasca.
- Promoción de un sistema integrado de Formaciónb Profesional.
- Constitución de LANEKI Elkartea y desarrollo del proyecto Lanbide Ekimena.
- Constitución de HEZKUNTEK Elkartea, promocionandon el desarrollo de Iparralde.
- En general, intentando favorecer el camino que facilite el desarrollo económico y social de este país.

Hemos sido competencia, nos hemos movido entre la competencia y la cooperación, pero siempre renovando y elevando la Formación Profesional. Y mirando al futuro, está claro que cuando más colaboremos llevaremos a un mayor nivel la Formación Profesional de nuestro país.

Me voy a atrever a decir que IKASLAN Gipuzkoa y HETEL compartimos algunas características. Quizá éstas sean las más importantes:

- El compromiso y la pasión por la Formación Profesional.
- Respeto y reconocimiento mutuo hacia el trabajo de cada uno.
- Proximidad y buen trato con los integrantes de ambas asociaciones.

Espero que el buen rollo que existe entre nosotros logremos potenciarlo por lo menos los próximos 20 años.

¡Felicidades! Renovemos y elevemos la Formación Profesional de este país.

# “Gaur egungo Gipuzkoa ezin izango genuke ulertu IKASLANen lanik eta lidergorik gabe

JOSEBA AMONDARAIN
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuaren Zerbitzuburua
Jefe de Servicio del departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de la DIPUTACÍON FORAL DE GIPUZKOA

**HOGEI URTE. IKASLAN SORTU ZENETIK 20 URTE IGARO DIRA. AUKERA ONA DA HORI NAGOEN LEKUTIK (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEKO ETA TURISMOKO DEPARTAMENTUTIK) HORREN BILAKAERA AZTERTZEKO.**

Bilakaera hori hitz bati lotuta egon da beti: konpromisoari. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin partekatutako konpromisoa da, Lanbide Heziketa erreferente izan dadin, pertsonen (haien garapen integrala eta, ondorioz, profesionala), enpresen (bizitza osoko ikaskuntza-sisteman oinarrituta ari diren ikastetxeak eta dinamikak eta enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza garatzeko zerbitzuak) eta gizartearen (hezkuntza, enplegua, garapen endogenoa eta abar) zerbitzuan diharduen funtsezko eragilea izan dadin.

Eginkizun horietan guztietan, IKASLANek hainbat eta hainbat ardura hartu ditu bere gain: aitzindaria izan da ikerkuntzan, langilea izan da jarduerak orokortzen, engaiatua izan da LH gizartean hedatzen eta horri balioa ematen, profesionala izan da proiektuak garatzen, eta inplikatua izan da garatutako ekimenen ebaluazioan.

Hori guztia ez da sartzen artikulu edo post batean. Beraz, TAG batzuk besterik ez ditut zerrendatuko. Edo, hobeto esanda, etiketatuko. Hau da, azpimarratu nahi dut ‘kanpotik’ egindako deskribapena dela (partekatutako 20 urteko lanaren ondoren), eta ez dela barruko azalpena, hori IKASLANek berak egin behar baitu. Eta horretarako hiru atal bereiziko ditut:

Gaien atalean: ikasleentzako nazioarteko mugikortasuna (COMETTetik Lanbide Heziketa bere baitan hartu zuenetik); etengabeko prestakuntza-programak (HEZILAN); bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako ikastetxe integralen kontzeptua; ikastetxeetan industria-ekipamendua sartzea (enpresena bezalakoa edo hobea); ikastetxeetan IKTak sartzea (irakasleak trebatzea, ekipamendu egokia eta, garrantzitsuena, metodologia eta tresna berriak garatzea ikasteko eta irakasteko prozesuetan) talde jakin batzuentzat (emakumeak); lanbideratzeko eta enplegagarritasunerako ekimenak (TXEKINBIDE); enplegu berrietarako gaitasun berriak sustatzea (aipamen berezia merezi dute hauek: ikasten ikastea, ekimenaren zentzua eta gaitasun sozio-emozionalak); eta bere eguneroko zereginetan euskara sustatzea (LHrako berariazko materialak erabili eta garatzea –LANEKI–).

VEINTE AÑOS. HAN PASADO 20 AÑOS DESDE LA FUNDACIÓN DE IKASLAN. UNA BUENA OCASIÓN PARA COMPARTIR LA VISIÓN DESDE MI POSICIÓN -EN EL DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN, DESARROLLO RURAL Y TURISMO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA- DE SU DEVENIR.

## Hoy no podríamos entender Gipuzkoa sin la labor y el liderazgo de IKASLAN”

Un devenir que ha estado ligado a una palabra: compromiso. Un compromiso compartido -con la Diputación Foral de Gipuzkoa- por hacer de la formación profesional un referente, un agente esencial al servicio de las personas (su desarrollo integral y, por ende, también el profesional), de las empresas (centros y dinámicas en un sistema de aprendizaje a lo largo de toda la vida, y, servicios para su competitividad e innovación); y, de la propia sociedad (educación, empleo, desarrollo endógeno, etc.).

En todos los casos, IKASLAN ha estado jugando una multiplicidad de responsabilidades: pionera en las experimentaciones, trabajadora en la generalización de las actuaciones, implicada en la difusión y la valorización sociales; profesional en el desarrollo de proyectos; e, implicada en la evaluación de las iniciativas desarrolladas.

Y, todo eso no cabe en un artículo, en un post. Así que sólo voy a poder enunciar unos pocos TAGs. O, mejor dicho, etiquetar. Es decir, quiero remarcar el hecho de que es una descripción aplicada desde “fuera” (en estos 20 años de trabajo compartido), más que algo intrínseco que corresponde a la propia IKASLAN. Y, lo voy ha hacer en tres diferentes apartados.



En el apartado de temas: movilidad internacional para el alumnado (cuando desde el COMETT incorporamos a la FP); programas de formación permanente (HEZILAN); desarrollar el concepto de centros integrales para el ALTV; incorporación de equipamiento industrial en las escuelas (igual o más allá del de las propias empresas); introducción de las TIC´s a las escuelas (capacitación del profesorado, equipamiento específico, y, lo más importante, desarrollo de nuevas metodologías e instrumentos en los procesos de aprendizaje/enseñanza), a ciertos colectivos (mujeres); iniciativas de inserción profesional y empleabilidad (TXEKINBIDE); promoción de las nuevas competencias para los nuevos empleos (con una mención específica a: aprender a aprender, sentido de la indicativa, y socio-emocionales); y, la promoción del euskera en su quehacer (impartición y desarrollo de materiales específicos para la FP –LANEKI-).

En el apartado de personas, tengo que conjugar, con todas y cada una de esas personas, características tales como visión, disponibilidad, innovación, entrega y taladrina. Unas personas que partieron de una fórmula jurídica concreta que permitiera el trabajo conjunto de centros públicos, de interlocución externa pero, sobre todo, han hecho posible la colaboración y cooperación internas. No es una lista, son personas: Jorge, los Iñakis, Mikel, Jose Ignacio, Maite, Leontxo, Vanessa, Cristina y Johana.

En el apartado de lugares, la etiqueta es más fácil: Gipuzkoa. Hoy no podríamos entender Gipuzkoa, en el ámbito educativo, profesional y socio-económico, es decir, sus personas, sus centros educativos, sus empresas y sociedad, sin la labor y el liderazgo de IKASLAN.

Y mi última etiqueta es: futuro. Estoy seguro que Gipuzkoa quiere compartir el futuro con IKASLAN. Es el futuro lo que nos queda por hacer, es el futuro quien nos hace y somos.



Pertsonei dagokienez, hainbat ezaugarri nabarmenduko nituzke horiengan guztiengan, hala nola haien ikusmena, gertutasuna, berrikuntza, gorputz eta arima aritzea eta taladrina. Pertsona horiek formula juridiko jakin batekin abiatu ziren, eta horrela ahalbidetu zuten ikastetxe publikoen baterako lana, kanpoko solaskidetza, eta, batez ere, barruko elkarlana eta lankidetza. Ez da zerrenda bat, banakako pertsonak baizik: Jorge, Iñaki (bat baino gehiago), Mikel, Jose Ignacio, Maite, Leontxo, Vanessa, Cristina eta Johana.

Lekuen atalean, etiketa errazagoa da: Gipuzkoa. IKASLANen lanik eta lidergorik gabe, ezin izango genuke gaur egungo Gipuzkoa ulertu hezkuntzaren, lanbidearen, gizartearen eta ekonomiaren arloan, hau da, Gipuzkoako pertsonak, ikastetxeak, enpresak eta gizartea.

Eta nire azken etiketa hauxe da: etorkizuna. Ziur nago Gipuzkoak IKASLANekin partekatu nahi duela etorkizuna. Etorkizuna da eginkizun duguna, etorkizunak egiten gaitu garen bezala.

> "20 urteotan, IKASLANek hainbat eta hainbat ardura hartu ditu bere gain
>
> En estos 20 años, IKASLAN ha estado jugando una multiplicidad de responsabilidades"

**MIKEL SARRIEGUI**
ADEGIko Ezagutzaren Kudeaketa
eta Prestakuntzako zuzendaria
Director de Gestión de Conocimiento
y Formación de ADEGI



## “Gero eta garrantzitsuagoa da hezkuntza eta produkzio-arloa elkarlanean aritzea

## Cada vez es más importante la colaboración entre el mundo educativo y el productivo”

**NIRETZAT, OHORE HANDIA DA IKASLANEN HOGEIGARREN URTEURREN HONETAN PARTE HARTZEA, ADEGIREN ETA GIPUZKOAKO ENPRESARIEN IZENEAN.**

ES PARA MÍ UN HONOR PARTICIPAR EN ESTE VIGÉSIMO ANIVERSARIO DE IKASLAN Y HACERLO EN NOMBRE DE ADEGI Y REPRESENTANDO A LOS EMPRESARIOS DE GIPUZKOA.

Garai zail hauetan, ziurgabetasuna da ziurra den gauza bakarra. Zygmunt Bauman-ek “modernotasun likidoa” deitu dio. Baumanen arabera, dena ezegonkorra da: gizakien arteko loturak behin-behinekoak dira, eta epe luze bakarra norbera da. Ez dago denborarik ideiak solidotu daitezen. Egiten duguna egiten dugula, momentukoa da.

Bada, hogei urte hauetan, Ikaslanek zalantzarik gabeko arrakasta lortu du: bi hamarkadatan bere xedearekiko leial izatea. Horrek frogatzen du garai likido hauetan oraindik ere errealitate eta ekimen solidoak badaudela.

Egunero ahalegintzeaz, lan egiteaz eta sakrifikatzeaz gain, zintzotasunez, ausardiaz eta jarritako helburuak lortzeko egoskorkeriaz jokatzean gertatzen da hori. Eta hori guztia eskuzabaltasun eta talentu handiz, eta berrikuntzarako eta zerbitzurako joera frogatuarekin.

Zorionak hogeigarren urteurrenean, Adegiren eta Gipuzkoako enpresen izenean.

Garai-aldaketa batean gaude, eta ez aldaketa-garai batean. Garai-aldaketa horren ezaugarri nagusia ekonomiaren globalizazioa da. Ezagutu dugun krisirik txarreneko unerik txarrenean gaude. Enpresek garai-aldaketara egokitu behar dute, krisirik txarrenean aurrera egin ahal izateko. Krisi guztiek izan dute finantza-osagaia, baina, krisi honetan, osagai hori inoiz baino larriagoa da. Eta, gainera, krisi demografikoa ere hartu behar da kontuan; gaur egun, ezkutuan dago, baina indarrez azalduko da, berandu baino lehenago.

En los tiempos en los que nos está tocando vivir la única certeza que tenemos es la incertidumbre. Es lo que Zygmut Barman ha definido como la “modernidad líquida” en la que todo es inestable, en la que los vínculos humanos son provisionales y en la que el único largo plazo es uno mismo. No se da tiempo para que ninguna idea solidifique. Hagamos lo que hagamos es de momento, por ahora.

Pues bien, Ikaslan, sus veinte años cuyo aniversario celebramos hoy, su éxito indudable, la fidelidad a su misión a lo largo de estas dos décadas, son la demostración de que en estos tiempos líquidos que al parecer corren, hay todavía realidades e iniciativas sólidas.

Es lo que sucede cuando al esfuerzo, el trabajo y el sacrificio diario, se une la honradez, la valentía e incluso la tozudez por alcanzar los objetivos trazados. Todo ello con grandes dosis de generosidad, talento, y un probado espíritu innovador y de servicio.

Enhorabuena y felicidades por este veinte aniversario, en nombre de Adegi y de las empresas de Gipuzkoa.

Estamos asistiendo a un cambio de época, no a una época de cambios. Cambio de época caracterizado por la globalización de la economía. Estamos padeciendo el peor momento de la peor crisis que hemos conocido. Las empresas están teniendo que adaptarse al cambio de época, tratando de sobrevivir a la peor crisis, que tiene una componente financiera que otras no han tenido con esta intensidad. A todo ello hay que añadir la crisis demográfica, que está latente pero va a emerger con fuerza más pronto que tarde.

Badakigu datozen urteetan sortuko den enplegua prestakuntza ertainekoa eta handikoa izango dela. Bestalde, bilakaera demografikoa negatiboa da, eta belaunaldien arteko ordezkapena eragotz dezake; izan ere, Confebaskek krisiaren aurretik egindako ikerlan batek ondorioztatu zuen ordezkapen-tasa 0,6koa zela, eta hezkuntza-eskaintzaren eta produkzio-sistemaren beharren arteko lotura ez zela egokia.

Ildo horretan, gero eta garrantzitsuagoa da hezkuntza eta produkzio-arloa elkarlanean aritzea. Azken urte hauetan, elkarlan horren ondorioz, Euskadiko Lanbide Heziketa eredu bihurtu da gure inguruan, bai eta, zergatik ez, nazioartean ere.

Enpresek aspaldi ulertu zuten punta-puntako lanbide-heziketaren aldeko apustua egin behar zutela, prestakuntza-maila handiko langileak lortzeko eta, horri esker, enpresen lehiakortasuna handitzeko. Hori dela eta, azken urte hauetan, enpresak Lanbide Heziketako zentroetako kudeaketa-organoetan sartu dira. Askotan, ekarpen ekonomiko handiak egin eta makinak eman dizkiete zentroei, haietan ematen den prestakuntza enpresen beharretara egokitu zedin.

Halaber, Lanbide Heziketako zentroek beste lan garrantzitsu bat egiten dute: Enplegurako Lanbide Heziketaren bidez, prestakuntza ematen diete Gipuzkoako enpresetako langileei. Funtsezko lana da, behar duten prestakuntza lortzen baitute enpresek eta langileek: alde batetik, pertsonen enplegagarritasuna handitu egiten da; eta beste batetik, enpresen lehiakortasuna eta produktibitatea hobetu egiten dira.

Eta ezin dugu Lantokiko Prestakuntzako Programa ahaztu. Horri esker, urtero, Gipuzkoako ia 3.000 gaztek praktikak egiten dituzte Gipuzkoako 2.200 enpresatan baino gehiagotan. Gazte horietako askorentzat, enpresa-arloarekin lehen harremana izateko aukera da, bai eta, hainbat kasutan, enplegua lortzeko bidea ere.

Beraz, Lanbide Prestakuntza aldatzen ari da, eta bada hori frogatzen duen beste adibide bat: txandakako prestakuntza. Hasieran, Ikasi eta Lan ereduaren bidez egiten zen, eta iazko ikasturtetik aurrera, Hezibi ereduarekin.

Ikaslan hogei urtez egon da Euskadiren, ikasleen, familien eta enpresen zerbitzura, eta espero dezagun gutxienez beste hogei urtez ere egotea. Bide horretan, eskua luzatuta izango gaituzue, laguntzeko prest.

**Mila esker eta Zorionak!!!!**



**"Ikaslan hogei urtez egon da Euskadiren, ikasleen, familien eta enpresen zerbitzura, eta espero dezagun gutxienez beste hogei urtez ere egotea**

Que estos veinte años de servicio al país, a los alumnos, a sus familias, a las empresas tengan su continuidad otros veinte años por lo menos"

Sabemos que el empleo que se va a crear en los próximos años va a ser un empleo con una cualificación media-alta. Por otra parte la negativa evolución demográfica puede dificultar el relevo generacional, ya que un estudio realizado antes de la crisis por Confebask preveía una tasa de reemplazo del 0,6 y a su vez una inadecuada relación entre la oferta educativa y la demanda del sistema productivo.

En este sentido, se hace cada vez más importante la colaboración entre el mundo educativo y el mundo productivo. Una colaboración durante estos año que ha provocado que la Formación Profesional en Euskadi sea un referente en nuestro entorno y porque no a nivel internacional.

Hace muchos años que las empresas entendieron la necesidad de apostar por una Formación Profesional puntera que dotara a las empresas de personas cualificadas necesarias para reforzar su competitividad. Por ello, las empresas se han implicado en durante estos años en los órganos de gestión de los centros de FP, realizando en muchos casos importantes aportaciones económicas y dotando de maquinaría a los centros para que la formación impartida se ajuste las necesidades de las empresas.

Muy importante es también el papel que están realizando los centros en la formación de las personas trabajadoras de las empresas guipuzcoanas, a través de la Formación Profesional para el Empleo y que resulta fundamental, realizando una formación que responda a sus necesidades y que permita la mejora de la empleabilidad de las personas y la mejora de la competividad y productividad de las empresas.

Cómo olvidar el Programa de Formación en Centros de Trabajo (FCT) que permite todos los años que cerca de 3.000 jóvenes guipuzcoanos realicen sus prácticas en más de 2.200 empresas guipuzcoanas, siendo para muchos de ellos el primer contacto con el mundo de la empresa y constituyendo en muchos casos una importante puerta de acceso al empleo.

Un ejemplo más de la evolución que se está produciendo en la Formación Profesional es la incorporación de la formación en alternancia, primero con el modelo Ikasi eta Lan, y desde el curso pasado con el modelo Hezibi.

Confiamos que estos veinte años de servicio al país, a los alumnos, a sus familias, a las empresas tengan su continuidad otros veinte años por lo menos. En ese camino siempre nos tendréis con la mano tendida para colaborar.

Mila esker eta Zorionak!!!!

# Jorge Arévalo Turrillas

**Lanbide Heziketako Sailburuordea**

Viceconsejero de Formación Profesional



**JORGE AREVALOK 20 URTE BAINO GEHIAGOKO LOTURA DU LANBIDE HEZIKETAREKIN. ALDI BATERAKO UTZI DU IRAKASLE-LANA, LHKO SAILBURUORDETZARA ITZULTZEKO. DATOZEN LAU URTEOTAN HELDU BEHARKO DIEN PROIEKTUAK ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA ETA BERRIKUNTZA DIRA.**

VINCULADO A LA FORMACIÓN PROFESIONAL DESDE HACE MÁS DE 20 AÑOS, JORGE ARÉVALO HA DEJADO PROVISIONALMENTE SU PUESTO DE PROFESOR PARA VOLVER A LA VICECONSEJERÍA DE FP. EN LOS PRÓXIMOS CUATRO AÑOS, MEJORAR LA EMPLEABILIDAD Y LA INNOVACIÓN SON LOS DOS GRANDES RETOS QUE VA A ABORDAR.

# “Ikaslanek segurtasuna eta bermea ematen dio Euskadiko LHren garapenari

## Ikaslan es un seguro y una garantía para el desarrollo de la FP en Euskadi”

**- Lanbide Heziketako sailburuordea zara 2012ko irailaz geroztik. Lehenago ere kargu horretan izan zinen, 2001etik 2005era bitartean. Zer erronkari heldu beharko diozu Eusko Jaurlaritzako etapa berri honetan?**

- Premiazko bi erronka nagusi ditut. Alde batetik, enplegagarritasuna. Horrek esan nahi du pertsonek lana errazago aurkitzea eta, lanean dihardutenek, lanari eustea. Hori oso garrantzitsua da.

Beste aldetik, enpresen lehiakortasuna hobetzea, batez ere euskal ekonomiaren sektorerik garrantzitsuenetan. Lehiakortasuna handitzeko behar-beharrezkoa dugu pertsonek kualifikazio hobea izatea.

- Desde diciembre de 2012 es viceconsejero de Formación Profesional, cargo que ya ocupó entre 2001 y 2005. ¿Qué retos afronta en esta nueva etapa en el Gobierno Vasco?

- Dos principales y urgentes. Por un lado, la empleabilidad. No sólo que las personas adquieran un empleo más fácilmente, sino que quien tenga un trabajo, lo pueda mantener. Esto es muy importante.

En segundo lugar, mejorar la competitividad de las empresas, sobre todo, en los sectores más importantes de la economía vasca. Necesitamos que la cualificación de las personas sea mejor y esto es muy importante para la competitividad.

ELKARRIZKETA
ENTREVISTA

**- Zertan ari zara lan egiten helburu horiek lortzeko?**

- Eusko Jaurlaritzak ez du lanposturik sortzen, baina lagundu ahal du eginkizun horretan, eta horixe egiten ari gara. Sailburuordetza helburu berriak finkatzen ari da Euskadi 2015 Agenda Estrategikoan. Horietako bat da bestelako Lanbide Heziketa martxan jartzea, eboluzionatua eta lanmerkatuaren egungo eta etorkizuneko beharretara egokituko dena.

**- Zer helburu zehatz ditu Euskadi 2015 Agenda Estrategikoak?**

- Lehen esan ditudanak: enplegagarritasuna eta berrikuntza. Enpleguari eustea oso garrantzitsua izango da. Enpresek aurrera egiteko giza baliabideen prestakuntza behar dute, eta prestakuntza gaur egungo enpresen errealitatera egokitu behar da. Horrela lortuko dugu jendeak lana errazago aurkitzea, eta lanean dihardutenek, lanari eustea. Eta horri esker, enpresak lehiakorragoak izango dira, produktiboagoak izango direlako.



> “Asko hitz egiten da Alemaniako LHri buruz, eta oso ona da, baina gurea ez da hori baino gutxiago.”

- ¿En que está trabajando para conseguir esto?

- El Gobierno Vasco no crea puestos de trabajo, pero sí puede ayudar a crearlos y es lo que estamos haciendo. La viceconsejería está trabajando en la Agenda Estratégica FP Euskadi 2015, en la que se están estableciendo unos objetivos nuevos que lo que están haciendo es volver a poner en marcha una formación profesional diferente, evolucionada y que se adecúe a las necesidades presentes y futuras reales de mercado laboral.

- ¿Qué objetivos son los de la Agenda Estratégica FP Euskadi 2015?

- Los mismos que he citado antes: empleabilidad e innovación. Mantener el empleo va a ser muy importante y la evolución de las empresas supone una mejor formación de los recursos humanos, más ajustada a la realidad de las empresas de hoy en día Asi conseguiremos que las personas encuentren un trabajo más fácilmente y que quien ya lo tiene, lo mantenga. De esta manera, también lograremos que las empresas sean más competitivas, porque serán más productivas.

- Al haber sido profesor durante tantos años, conoce muy bien la idiosincrasia de la FP. ¿Cómo ve usted la Formación Profesional en estos tiempos?

- (Rotundo) La FP vasca está muy bien en varios aspectos.

A nivel de equipamientos está muy bien preparada. La sociedad vasca ha hecho una inversión muy fuerte para que la FP pudiera dar los resultados que ha dado. De hecho, uno de las razones por las que la recesión ha entrado más tarde en Euskadi es, en cierta medida, porque la FP ha trabajado muy bien. Estábamos preparados para adaptar las diferentes cualificaciones de las personas de forma rápida y eficaz. Por otro lado, los centros trabajan muy bien y lo hacen en red. Esta cooperación es una de las mejores cosas que hemos hecho en los últimos años.

- ¿Cómo le está afectando la crisis a la FP?

- Nos está pegando muy fuerte a todos y a nosotros también. En 1996, al salir de la fuerte crisis de 1993, el Gobierno decidió, entre otras cosas, que había que dar un vuelco a la FP de Euskadi. Se lo dimos y creamos un sistema que ha dado muy buenos resultados y que preveía poder hacer frente a una nueva crisis. Lo que ocurre es que esta crisis está siendo de una dimensión enorme. Nosotros nos preparamos para una crisis de dos o tres años y ya llevamos cinco... Los primeros años los hemos llevado mucho mejor que en otros sitios. Ahora necesitamos estímulos de fuera y lo que también está ocurriendo es que hay economías emergentes que antes no competían con Euskadi y ahora sí. Esto nos está obligando a competir de otra manera. Cuando la situación es complicada, se tienen que hacer cosas diferentes y mejores. Esto nos está llevando a tipos productivos en Euskadi, sobre todo en los sectores industriales, mucho más complejos. Esto supone que la cualificación de nuestro capital humano tiene que ser mejor. Tenemos que ir a cualificaciones altas o muy altas.

Por otro lado, tenemos que apostar por la austeridad inteligente. Se trata de mezclar austeridad con eficacia y ajustes con impulsos. Estos es lo que estamos haciendo tanto para que la FP como la actividad en las empresas pueda mejorar.

- ¿Esto cómo se consigue mejorar la cualificación de las personas?

- Cambiando la formación. Apoyando a las empresas en su innovación, trabajando sectores diferentes, relacionando aún más los centros de FP con las empresas, apoyando a los sectores que ya son competitivos... Y también potenciando sectores tradicionales: desde un comercio de un pueblo a talleres pequeños... Se han ido descuidando y hay que volver a tener una sensibilidad especial con ellos porque pueden aportar mucho a la salida de la crisis.

**- Hainbeste urtez irakasle izanda, oso ondo ezagutzen duzu LHren izaera. Nola ikusten duzu gaur egungo Lanbide Heziketa?**

- (Irmoki) Euskal Lanbide Heziketa oso ondo dago hainbat alderditan.

Ekipamenduen aldetik, oso ondo hornituta dago. Euskal gizarteak inbertsio handia egin du LHk eman dituen emaitzak emateko. Izan ere, Euskadin atzeraldia beranduago iritsi izanaren arrazoietako bat, neurri batean, LHk egindako lan ona izan da. Prestatuta geunden pertsonen kualifikazioak azkar eta eraginkortasunez egokitzeko. Bestalde, ikastetxeek oso lan ona egiten dute, eta sarean egiten dute. Azken urteetan egin dugun gauzarik onenetako bat izan da lankidetza hori.

**- Nolako eragina du krisialdiak LHn?**

- Oso gogor kolpatzen ari da, eta gu ere kolpatzen gaitu. 1996an, 1993ko krisialdi sakona atzean utzi ondoren, Euskadiko Lanbide Heziketa goitik behera aldatu beharra zegoela erabaki zuen Gobernuak. Goitik behera aldatu genuen, eta sortu genuen sistemak oso emaitza onak eman zituen. Gainera, gerora etor zitekeen beste krisialdi bati aurre egiteko prestatuta zegoen. Baina zera gertatzen da: krisialdi hau ikaragarria da. Gu bi edo hiru urteko krisialdi baterako prestatu ginen, eta dagoeneko bost egin ditugu... Lehen urteak beste leku batzuetan baino askoz hobeto eraman ditugu. Orain, kanpoko pizgarriak behar ditugu. Bestalde, hazteko bidean dauden ekonomiak lehen ez ziren Euskadiren lehiakide, eta orain bai. Beste modu batean lehiatzera garamatza horrek. Egoera zaila denean, gauza desberdinak eta hobeak egin behar dira. Egoera horrek beste produkzio mota batzuk egitera behartzen gaitu Euskadin, batez ere industriako sektoreetan, askoz konplexuagoak baitira. Ondorioz, gure giza kapitalaren kualifikazioak hobea izan behar du. Hau da, giza kapitalak kualifikazio handia edo oso handia izan behar du.

Bestalde, zorroztasun adimentsuaren aldeko apustua egin behar dugu. Zorroztasuna eta eraginkortasuna, doikuntzak eta bultzadak bateratu behar ditugu. Horixe egiten ari gara LHren eta enpresen jarduera hobetzeko.

**- Nola lortzen da pertsonen kualifikazioa hobetzea?**

- Prestakuntza aldatuz. Enpresei berrikuntzan lagunduz, sektore desberdinak landuz, LHko ikastetxeen eta enpresen arteko harremanak sakonduz, lehiakorrak diren sektoreak bultzatuz... Baita sektore tradizionalak sendotuz ere: herriko saltokiak, lantegi txikiak... Azken horiek alde batera utzi ditugu eta horiekin sentikortasun berezia izan behar dugu, krisialditik irteteko oso lagungarri izan daitezkeelako.

**- Erreferentziako eredurik duzue?**

- Euskal eredua. Munduko onena da, zalantzarik gabe. Asko hitz egiten da Alemaniako LHri buruz, eta oso ona da, baina gurea ez da hura baino gutxiago. Egiten dituzten gauzak kontuan izan behar ditugu, baina gure ikastetxeek alemaniarrek bezain ondo funtzionatzen dute. Eta munduko harrotasun guztiaz esaten dut hori.

**- Zein da LHren eginkizuna lanpostu berriak sortu eta krisialditik irteteko?**

- Bi eremutan ari gara lanean. Lehena, hemen lanik aurkitzen ez duelako, giza kapitalak Euskaditik alde egin dezan saihestea. Guretzat oso kezkagarria da gazteek ikasketak amaitu eta hemen enplegurik ez aurkitzea. Hala ere, haie-




"No podemos permitir que se vaya nuestro capital humano fuera de Euskadi."

- ¿Tienen algún modelo de referencia?

- El vasco, que es el mejor del mundo, sin duda. Se habla mucho de la FP alemana, que es muy buena, pero no tenemos nada que envidiarle. Sí hay que tener en cuenta cosas que hacen, pero nuestros centros funcionan tan bien como los alemanes. Y lo digo con todo el orgullo de mundo.

- ¿Qué papel puede tener (o está teniendo) la FP en la generación de nuevos puestos de trabajo y en una posible salida de la crisis?

- Nosotros ya estamos trabajando en dos líneas. Una, evitar que el capital humano se vaya de Euskadi porque aquí no encuentra trabajo. Nos preocupa mucho la gente joven que termina sus estudios y no tiene un empleo. Sin embargo, muchos de ellos van a tener trabajo no en demasiado tiempo y no podemos permitir que se vaya nuestro capital humano fuera de Euskadi. Por eso, estamos buscando cómo acertar con las políticas adecuadas para dar cobertura a estas personas.

- O sea que la "fuga de cerebros" también está afectando a la FP...

- Se está dando, menos que en otros sitios, pero sí. La tremenda frase de "aquí no hay futuro" no es cierta. En Euskadi sí hay futuro. Vamos a pasar dos años muy malos, pero aunque parezca una paradoja, vamos a necesitar personas en puestos de trabajo que no se van a poder cubrir porque no habrá suficientes trabajadores. Esto va a darse en el sector industrial, que va a ser el primero que va a tirar en la salida de la crisis.

- ¿Y la segunda línea en la que están trabajando cuál es?

- Las personas tienen que ver bien por qué estudios optar y éste es un tema muy complejo. Tenemos que encontrar un equilibrio entre lo que nos gustaría estudiar y lo que realmente nos va a posibilitar trabajar. Tenemos que ser capaces de que esas personas que estaban preparadas en una cosa se preparen para desarrollar otro tipo de trabajo. Hay personas sobrecualificadas que están sin empleo y esto es tremendo. Por eso, hay que adecuar su cualificación a lo que realmente necesita el sector productivo. La FP va a posibilitar esta transición. Estamos poniendo políticas en marcha, trabajando a marchas forzadas para poder ver resultados cuanto antes.

ELKARRIZKETA
ENTREVISTA

tako askok lana izango dute luze baino lehen, horregatik ezin dugu onartu gure giza kapitalak Euskaditik alde egitea. Beraz, politika egokiak bilatzen ari gara, pertsona horiei irtenbideak emateko.

**- Hau da, "garun-ihesak" LHn ere eragina du...**

Eragina du, bai, beste leku batzuetan baino txikiagoa, baina badu. "Hemen ez dago etorkizunik" dioen esaldi ikaragarri hori ez da egia. Euskadin badago etorkizunik. Oso urte txarrak pasatuko ditugu, baina paradoxa badirudi ere, nahikoa langile ez dagoelako bete ezinik geratuko diren lanpostuetarako pertsonak behar izango ditugu. Horixe gertatuko da industria-sektorean, krisialditik irtetean, hori izango baita suspertuko den aurreneko sektorea.

**- Eta zein da lantzen ari zareten bigarren eremua?**

- Pertsonek argi ikusi behar dute zer ikasketa aukeratu. Hori oso gai korapilatsua da. Oreka aurkitu behar dugu ikasi nahi dugunaren eta lanerako bidean jarriko gaituenaren artean. Lan baterako prestatuta zeuden pertsonak beste lan baterako prestatzeko gai izan behar dugu. Badira oso kualifikazio handiko pertsonak langabezian, eta hori izugarria da. Horregatik, egokitu behar dugu kualifikazioa produkzio-sektoreak behar duen horretara.  Eta LHk trantsizio hori ahalbidetuko du. Politikak martxan jartzen ari gara, abiada bizian ari gara lanean, emaitzak lehenbailehen ikusteko.

**- Mintza gaitezen berrikuntzaz. Zenbateraino da funtsezkoa une hauetan eta LHren etorkizunean?**

- Hainbeste hitz egiten da berrikuntzaz, non hitza higatu egin den. Berrikuntza nola erabiltzen den zehaztu behar dugu.

2000. urteaz geroztik diru pila bat inbertitu dugu Euskadin, gure enpresak berritzaileagoak izan daitezen. Lehen esan dudan moduan, gaur egun, lehiakorrak izan nahi badugu, bi aukera ditugu: gauza hobeak egitea edo gauza desberdinak egitea.   Horixe da berritzea. Eta esan ez ezik, egin ere egin behar dugu, eta hemen badakigu egiten. Berritzeko arriskatu egin behar da, hori argi dago. Batzuetan asmatuko dugu eta beste batzuetan ez.

**- Ikaslanek 20 urte beteko ditu aurten. Nola baloratuko zenuke bi hamarkada hauetan egindako lana?**

- Ikaslanek oso ekarpen handia egin du 20 urte hauetan. Askotariko sendotasunak ditu. Alde batetik, leialtasun instituzionala. Gauzak ikusten dituen moduan esaten ditu, ikuspegi eraikitzaile batetik. Hori oso garrantzitsua da Administrazioarentzat, haienganako konfiantza osoa izateko bidea ematen baitio. Elkarrenganako konfiantza dago. Beste aldetik,  Ikastetxeen arteko harremanak. Oso foro egokia dute eztabaidatzeko, proiektuak bultzatzeko, elkartrukerako eta ikastetxe batek bakarrik egingo ez lituzkeen gauzak egiteko. Hirugarren sendotasuna  elkarketa da. Inon funtzionatzen badu, Ikaslanen funtzionatzen du. Ez bakarrik bere baitan, baita Euskadi osoan eta kanpoaldean ere. Ikaslanek beti egiten ditu ekarpenak. Harrigarria da benetan. Politika bateratuak egiteko ideiak, asmoak eta, askotan, baita dirua ere. Ikaslanek segurtasuna eta bermea ematen dio Euskadiko LHren garapenari.

**- Zergatik ditu hainbeste gauza on Ikaslanek?**

- Giza talde aparta duelako –oso eginkizun garrantzitsua bete du sorreratik bertatik–, eta lankidetza bere sortzeprintzipioetariko bat delako. Barne-lankidetza (ikastetxeen artean) eta kanpo-lankidetza. Horri esker, filosofia oso eraikitzailea du.




"Para innovar hay que arriesgar, evidentemente. A veces se acierta y otras no."

- Hablemos de la innovación. ¿Hasta qué punto es clave es estos momentos y en el futuro de la FP?

- Se ha hablado tanto de innovación que la palabra ya está gastada. Hay que hablar de cómo se aplica la innovación.

Desde el año 2000 se ha invertido muchísimo dinero en Euskadi para que nuestras empresas sean mucho más innovadoras. En estos momentos, como decía antes, para ser competitivos o hacemos cosas mejores o hacemos cosas diferentes. Esto es innovar. Y hay que hacerlo, no sólo decirlo y, aquí, lo sabemos hacer. Para innovar hay que arriesgar, evidentemente. A veces se acierta y otras no.

- Este año Ikaslan cumple su 20 aniversario. ¿Cómo valora la labor que ha desarrollado en estas dos décadas?

- Ikaslan ha aportado muchísimo en los últimos 20 años. Sus fortalezas son varias. Una: la lealtad institucional. Dice las cosas como entiende que son y desde un perspectiva constructiva. Esto es muy importante para la Administración porque permite confiar plenamente en ellos. Hay una relación de confianza mutua. Segundo fortaleza: la relación entre los centros. Tienen un foro importantísimo donde debatir, donde aportar proyectos, intercambiar y hacer cosas que un centro sólo no podría hacer. Tercera fortaleza: la asociación. Si en algún sitio ha funcionado es en

## "LHko irakaslea naiz eta oso harro nago"

**- Urte askotan irakasle aritu zara Easoko Politeknikoan. Horren hutsunea sentitzen duzu?**

- Lanbide Heziketako irakaslea naiz. Atsegin dut lanbide hori eta, Eusko Jaurlaritza uzten dudanean, horretara itzuliko naiz. Nire lanbidea da eta harro nago.

**- Zer duzu atseginago: irakaskuntza ala politika?**

Irakaslea naiz, argi eta garbi. Administrazioaren alde honetan egotea ere gogoko dut, ekarpenik egin ahal badut. Eta zorte handia izan dut, egon naizen Gobernuek gauzak egiten utzi didatelako eta horretara bultzatu nautelako. Urkullu lehendakariak arretaz begiratzen du zer egiten dugun Lanbide Heziketan eta galdera asko egiten dizkit, badakielako Lanbide Heziketa funtsezkoa izango dela euskal lehiakortasunerako.

Zuzendariek ere badute zerikusi handirik. Askotariko arazoak dituzten ikastetxeak ordezkatzen dituzte eta, hala ere, beti bilatzen dute adostasun-puntua. Ikaslan ahots bakarra da, eta horregatik da hain indartsua. Administrazioarekiko harremanetan ere halakoxea da.

hezibi

**- Zer deritzozu Hezibi programa abian jartzeari?**

- Hezibi programaren ernamuina Ikasi eta Lan proiektua da. Egoera ekonomikoa ona zelarik ere, bestelako kualifikazioen beharra zegoela hauteman zuen proiektuak. Konturatu ginen, alde batetik, lanpostu jakin batzuetan langileak behar izango zirela, eta bestetik, gure jendeak kualifikazio hobea behar zuela. Horretarako esku artean genuen aukeretako bat zen jendea LHko ikastetxeetan eta, aldi berean, enpresetan trebatzea. Hezibik orokortu egin zuen Ikasi eta Lan proiektua, hobetu eta garatu egin zuen ikastetxeko eta enpresako baterako prestakuntzaren kontzeptua. Orain indartu egingo dugu hori eta, horretarako, hirugarren eredu bat bultzatuko dugu, Hezibin oinarrituta egongo dena eta hark garatuko duena.

**- Zertan datza garapen hori?**

Kontzeptua lehengo berdina da, baina beste urte bat gehituko dugu. Horrela, ikasleek prestakuntza hobea izango dute. Horretarako LHko espezializazio-ikastaroak erabiliko ditugu, nolabaiteko "graduondokoak" edo "tituluondokoak" izango diren LHko ikastaroak. Horri esker, enpresen beharretarako titulazio egokiak sortuko ditugu. Hezibik ez du urrats hori eman oraindik. Eta hori da, hain zuzen, Euskadi 2015 Agenda Estrategikoaren beste puntuetako bat.

Ikaslan. No sólo en su seno, sino también en Euskadi y en el exterior. Ikaslan siempre aporta. Es impresionante. Ideas, ganas y muchas veces dinero, para hacer políticas conjuntas. Ikaslan es un seguro y una garantía para el desarrollo de la FP en Euskadi.

- ¿Por qué tiene tanto de bueno Ikaslan?

- Aparte de por su equipo humano, que juega un papel fundamental desde su fundación, porque la cooperación es uno de sus principios fundacionales. Una cooperación tanto interna (entre los centros) como externa, que ha hecho que su filosofía sea tan constructiva.

Los directores y las directoras tiene también mucho que ver. Representan a centros con problemáticas muy diversas y, a pesar de esto, siempre buscan puntos de encuentro. Ikaslan es una única voz y esto es lo que le hace tan fuerte. También en su relación con la Administración es así.

- ¿Cómo valora la puesta en marcha del programa Hezibi?

- Hezibi nace de Ikasi eta Lan, un proyecto que detecta una necesidad de cualificación diferente en una situación económica buena. Nos dimos cuenta, por un lado, de que iban a faltar trabajadores en determinados puestos de trabajos y, por otro, que nuestra gente tenía que salir mejor cualificada. Una de las posibilidades era que la gente se formara en los centros de FP y al mismo tiempo en las empresas. Hezibi generaliza aún más Ikasi eta Lan, hace algunas mejoras y desarrolla este concepto de preparación conjunta en el centro y en la empresa. Lo que vamos a hacer es potenciar esto aún más y trabajar en un tercer modelo que se apoye en Hezibi pero que lo evolucione.

- ¿En qué va a consistir esta evolución?

- El concepto va a ser el mismo, pero vamos a añadir un año, lo que va a permitir una mayor preparación de las personas. Utilizaremos para ello los cursos de especialización de la FP, un tercer curso de la FP que sería una especie de "postgrado" o "postítulo". Estos van a garantizar una titulación adecuada a las necesidades de la empresa. Esto Hezibi ahora mismo no lo tiene. Este es, también, otro de los puntos de la Agenda Estratégica FP Euskadi 2015.



## "Soy profesor de FP y estoy muy orgulloso"

- Durante muchos años usted ha impartido clases en el Politécnico de Easo. ¿Echa de menos sus tiempos de profesor?

- Soy profesor de Formación Profesional. Me gusta mucho y cuando deje de estar en el Gobierno volveré a serlo. Es mi profesión y me siento muy orgulloso.

- ¿Qué le gusta más: la enseñanza o la política?

- Yo soy profesor, claramente. Me gusta estar en este lado de la Administración si puedo aportar. Y he tenido la suerte que los Gobiernos en que he estado me han permitido hacer cosas y me han empujado a ello. El lehendakari Urkullu está muy pendiente de lo que se hace en la Formación Profesional y me pregunta mucho porque sabe que la FP va a ser vital para la competitividad vasca.

**Maiatzak 10, Donostia**
10 de mayo, San Sebastián

# Ekitaldi nagusia
## Acto Principal




1.
Antonio Moranek (Tolosako Paper Eskolako zuzendari ohia) Jorge Arevalo LHko sailburuordea agurtzen.

2.
Arantza Auzmendi (Plaiaundi) eta Iñaki Konde ekitaldia hasi aurretik.





3.
Kepa Ibañez (Ikaslan Arabako presidentea) eta Juaina Larrañaga (Urola I. Azkoitia-Azpeitia zuzendaria)



4.
Iñaki Konde eta Mikel Sarriegi (Adegi) Aquariumeko sarreran.



5.
Ina Larrañaga, Joxe Mari Elola eta Iñaki Konde. Ikaslan Gipuzkoako hiru presidenteak.




6.
Kepa Ibañez, Ikaslan Arabako presidentea, eta Tomas Maguregi, Ikaslan Bizkaiako presidentea.


7.


8.

**Joan den maiatzaren 10ean Ikaslan Gipuzkoaren 20.urteurrenaren Ekitaldi Nagusia ospatu zen Donostiako Aquarium-ean.**

**11.00 Ekitaldiaren sarrera.** Aquarium-eko Presidentea den Vicente Zaragüeta jaunaren eskutik.

- IKASLAN GIPUZKOAko ETAPAK Joxe Mari Elola jauna, Iñaki Konde jauna eta egungo Presidentea den Ignacio Larrañaga jauna.
- IKASLAN ARABA (Pedro Ibañez jauna, Presidentea) eta IKASLAN BIZKAIA (Tomas Maguregi jauna, Presidentea).
- HETEL Gipuzkoa (Ion lartza jauna) eta AICE-IZEA Gipuzkoa (Jose Ignacio Hernández jauna)
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEKO ETA TURISMOKO DEPARTAMENTUA (Joseba Amondarain jauna), ADEGI (Mikel Sarriegi jauna) eta LANBIDE (Itziar Etxebarria anderea).
- Esker ona IKASLAN GIPUZKOAko sortzaileei.
- Ekitaldiaren itxiera, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZ POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO Lanbide Heziketako Sailburuorde den Jorge Arevalo Turrillas jaunaren eskutik.

**13.00**
**Aperitiboa.**

**13.30**
**Aquarium-etik bisita gidatua**

El pasado 10 de mayo se celebró en el Aquarium el acto conmemorativo del 20 Aniversario de IKASLAN GIPUZKOA.

**11.00**
**Apertura del acto.** A cargo del Sr. Vicente Zaragüeta, Presidente del Aquarium.

- IKASLAN GIPUZKOA ETAPAS (Sr. Joxe Mari Elola, Sr. Iñaki Konde y Sr. Ignacio Larrañaga, Presidente actual de la Asociación).
- IKASLAN ARABA (Sr. Pedro Ibañez, Presidente) e IKASLAN BIZKAIA (Sr. Tomas Maguregi, Presidente).
- HETEL Gipuzkoa (Sr. Ion lartza) y AICE-IZEA Gipuzkoa (Sr. Jose Ignacio Hernández).
- DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA, DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN, DESARROLLO RURAL Y TURISMO (Sr. Joseba Amondarain), ADEGI (Sr. Mikel Sarriegi) y LANBIDE (Sra. Itziar Etxebarria).
- Reconocimiento a los fundadores de IKASLAN GIPUZKOA.
- Clausura del acto a cargo del Sr. Jorge Arevalo Turrillas, Viceconsejero de Formación Profesional del Departamento de EDUCACION, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA del GOBIERNO VASCO.

**13.00**
**Aperitivo.**

**13.30**
**Visita guiada al Aquarium**


9.


10.



11.

7.
Kepa Ibañez (Ikaslan Arabako presidentea) eta Agustin Agirre (Tknikako Formakuntza arduraduna).

8.
Aquarium-eko arduradunak eta Iñaki Mujika (Tknikako zuzendaria).

9-10.
Lagun asko bildu zen maiatzaren 10ean Aquariumen Ikaslan Gipuzkoaren 20. Urteurrena ospatzera.

11.
Olatz Yarza kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia.


1.


2.


3.



4.


5.


6.


7.



1. Ikaslan Gipuzkoak izan dituen hiru presidenteek hasiera eman zioten ekitaldiari.
2. Ikaslan Gipuzkoako 20. urteurreneko ekitaldia.
3. Jorge Arévalo, Lanbide Heziketako sailburuordea.
4. Los buzos del Aquarium sorprendieron a los asistentes.
5. Ion Iartza HETELeko Gipuzkoako arduraduna.
6. Tomas Maguregi, Ikaslan Bizkaiako presidentea eta Kepa Ibañez, Ikaslan Arabako presidentea.
7. Mikel Sarriegi (Adegi), Joseba Amondarain (Diputación) e Itziar Etxebarria (Lanbide).
8. Momento de la entrega de los pins conmemorativos.
9. Ekitaldiak interesa handia sortu zuen gonbidatuegan.
10. Ekitaldiaren ponenteak eta omendutakoak.



8.



9.



10.

Ekitaldi nagusia amaitu ostean, gonbidatuek pintxo gozoez dastatzeko aukera izan zuten Bokado jatetxean.

Tras las intervenciones, los asistentes al evento tuvieron la posibilidad de degustar los pinchos del restaurante Bokado.













# Proiektuak
## Proyectos




34 IEFPS Usurbil

37 TKNIKA

38 jakinbai.eu

40 **Ikaslan Gipuzkoak kudeatutako proiektuak**
Proyectos gestionados por Ikaslan Gipuzkoa




## IEFPS USURBIL

# Hidrogeno-pila eta mikrosarea: bi berrikuntza-proiektu

# Pila de hidrógeno y micro-red: dos proyectos de innovación

*-Eta zer erreko da ikatzaren ordez?*

*-Ura! –erantzun zuen Ciro Smithek.*

*Ura elektrizitatearekin deskonposatuko da, zalantzarik gabe, eta indar handia eta maneiagarria izango da orduan.*

*Bai, adiskideok, uste dut ura erregai gisa erabiliko dela noizbait, ura osatzen duten hidrogenoak eta oxigenoak, isolatuta eta batera erabilita, bero- eta argi-iturri agortezina sortuko dutela, harrikatzarena baino askoz intentsitate handiagokoa gainera. Etorkizuneko ikatza da ura.*

*-¿Y qué se quemará en vez de carbón?*

*-¡Agua! - respondió Ciro Smith.*

*Agua descompuesta sin duda por la electricidad y que llegará a ser entonces una fuerza poderosa y manejable.*

*Sí, amigos míos, creo que el agua se usará un día como combustible, que el hidrógeno y el oxígeno que la constituyen, utilizados aislada y simultáneamente, producirán una fuente de calor y de luz inagotable y de una intensidad mucho mayor que la de la hulla. El agua es el carbón del porvenir.*

***Julio Verne** (Uharte misteriotsua/La isla misteriosa, 1875)*

HIDROGENOA ERREGAI GISA ERABILTZEKO AUKERARI BURUZKO ARTIKULU BATEN HASIERAN, IA EZINBESTEKOA DA IDAZLE FRANTZIARRAK IZAN ZUEN ETORKIZUNEKO IKUSPEGI BIKAINAREN ETA GARAIKO TEKNOLOGIAREN EZAGUTZA HANDIAREN ADIBIDE HORI AIPATZEA.

Ikus daitekeenez, hidrogenoa erregai gisa erabiltzeko ideia aspaldikoa da, baina, arrazoiak arrazoi, oraindik ez da garatzen hasi (harrigarria bada ere, hidrogeno-pilak funtsezkoak izan ziren ilargira iristeko Apolo programaren misioetan).

Hidrogeno-pilek hainbat abantaila dituzte beste teknologia batzuen aldean:

• Erregai garbia erabiltzen da, errekuntzaren produktu bakarra ura baita.

• Makina termikoa ez denez gero, ez ditu makina horiek Carnot-en zikloaren ondorioz izaten dituzten muga termodinamikoak. Kelvin gradutan adierazitako T2 eta T1 tenperaturen arteko Carnoten ziklo bati jarraituz diharduen motor termiko batean, lor daitekeen efizientziarik handiena honela kalkulatzen da:

_teor = $\frac{T_2 - T_1}{T_2}$

Energia-instalazioetan dagoen gas beroaren bidez eragindako sorgailuen lurrun-turbinek % 51 inguruko gehieneko errendimendua lor dezakete (errendimendu erreala % 40 ingurura iristen da). Gaur egungo autoen motorrek % 20ko efizientzia dute, eta Carnoten muga % 37 da.

• Erregai fosilekiko (hots, petrolioarekiko eta gas naturalarekiko) energia-mendetasuna desagertzen da. Izan ere, hidrogenoa elementurik ugariena da, naturan libre ez badago ere (beste elementu batzuekin konbinatuta agertzen da).

ES CASI OBLIGADO COMENZAR CUALQUIER ARTÍCULO QUE TRATE SOBRE EL USO DEL HIDRÓGENO COMO COMBUSTIBLE CITANDO ESTE EJEMPLO DE LA EXTRAORDINARIA VISIÓN DE FUTURO Y CONOCIMIENTO DE LA TECNOLOGÍA DE SU TIEMPO DEL ESCRITOR FRANCÉS.

Como puede verse, la idea del uso del hidrógeno como combustible viene de lejos, aunque por diversas causas no termina de despegar (paradójicamente, la pila de hidrógeno tuvo un papel fundamental en las misiones del programa Apolo con el que se llegó a la luna).

Las pilas de hidrógeno presentan una serie de ventajas frente al uso de otras tecnologías:

• Se utiliza un combustible limpio ya que el único producto de su combustión es agua.

• Al no ser una máquina térmica no tiene las limitaciones termodinámicas de éstas debidas al ciclo de Carnot. Para un motor térmico, que trabaja siguiendo un ciclo de Carnot entre dos temperaturas dadas $T_2$ y $T_1$, expresadas en grados Kelvin, la máxima eficiencia posible viene dada por:

_teor = $\frac{T_2 - T_1}{T_2}$

Las turbinas de vapor de los generadores accionadas por gas caliente que hay en las plantas de energía pueden alcanzar un rendimiento máximo en torno al 51% (el rendimiento real es del 40 % aproximadamente). Los motores de los coches actuales tienen eficiencias de un 20 %, siendo su límite de Carnot de un 37 %.

• Se elimina la dependencia energética de combustibles fósiles (petróleo y gas natural). El hidrógeno es el elemento más abundante, aunque no se encuentra libre en la naturaleza sino combinado con otros elementos.

• Energia bektorea da, hau da, leku batean sortu, garraiatu eta beste leku batean erabil daiteke. Energia leku batetik bestera garraiatzeko aukera ematen du.

• Ziklo itxia da: hidrogenoa uretik lor daiteke, eta, errekuntzaren ondorioz, geratzen den hondakin bakarra ura da berriz.

Dena dela, erregai fosilekin berdintasun-baldintzetan lehiatzea eragozten duten desabantaila batzuk ere baditu:

• Oso masa txikiko molekula denez gero, bolumen-unitateko energia oso txikia da. Konpresio handiak erabili behar dira. Bizitegi-erabileretan, 200 bareko presioak erabiltzen dira, era garraio-erabileretan, berriz, 350-700 barekoak. Biltegiratzetangen hormak oso lodiak dira presio horiei eusteko.

• Hidrogenoa elektrolisi bidez produzitzeko prozesuak energia kantitate handia behar du.

• Erregai-piletan erabiltzen den katalizatzailea platinoa da, eta horrek oso neurri handian igotzen du prezioa.

• Piletan erabiltzen den hidrogenoak purutasun handikoa izan behar du (% >99,9999), katalizatzaile gisa dihardien platinoa kutsa ez dadin.

## NOLAKOA DA ERREGAI-PILA BAT?

Erregai-pilak hainbat motatakoak izan daitezke, baina elektrolito polimerikozko mintza duten pilak dira ohikoenak (PEM).

PEM motako piletan, oinarrizko gelaxkari MEA deitzen zaio, eta ingelesezko terminoaren akronimoa da (membrane electrode assembly). Funtsean, mintz elektrolitiko batez, bi elektrodoz (anodoa eta katodoa), katalizatzaileez eta gasen difusio-geruzez osatuta dago. Gelaxka horiek bi plaka bipolarren bidez ixten dira, eta bertatik sartzen dira gasak.

Anodoari hidrogenoa eta katodoari oxigenoa (airetik lortzen dena) gaineratzen zaionean hasten da pila funtzionatzen. Bi gas horiek elektrodoen plaka bipolarren kanaletatik sartzen dira, eta gainazal osoan banatzen dira gasen difusio-geruzetan zehar.

Gas erreaktiboek difusio-geruza zeharkatu ondoren, katalizatzailearekin egiten dute topo; PEM pilen kasuan, platinoan oinarritutako aleazio metalikoez osatuta dago katalizatzailea. Katalizatzailearen geruza hori gasen difusio-geruzaren eta elektrolitoaren artean kokatuta dago, eta anodoak protoietan eta elektroietan disoziatzen du hidrogeno-molekula.

$H_2$ molekula disoziatu ondoren, protoiek ($H^+$) mintz polimerikoa zeharkatzen dute katodora iritsi arte. Elektroiek, berriz, kanpoko zirkuitu elektriko bat zeharkatzen dute elikatu beharreko kargara iritsi arte.

Mintz polimerikoaren eta katodoaren artean kokatuta dagoen katalizatzaileak elektrolitotik datozen $H^+$ ioiak eta kanpoko zirkuituko elektroiak konbinatzen ditu, eta ura lortzen da emaitza gisa.

Honako erreakzio hauek gertatzen dira:

Anodoko erreakzioa: $H_2$ _ $2H^+ + 2e^-$

Katodoko erreakzioa: _ $O_2 + 2H^+ + 2e^-$ _ $H_2O$

Pilaren erreakzio orokorra: $H_2$ + _ $O_2$ _ $H_2O$

• Es un vector energético, es decir se puede producir en un lugar, transportarlo y ser utilizado en otro sitio. Permite transportar la energía de un lugar a otro.

• Es un ciclo cerrado: el hidrógeno se puede producir a partir del agua y después de su combustión el único residuo vuelve a ser agua.

Pero también tienen tiene desventajas, que suponen que por el momento no compita en igualdad con los combustibles fósiles:

• Al ser una molécula con tan baja masa, la energía por unidad de volumen es muy pequeña. Es necesario utilizar grandes compresiones. Se utilizan presiones de 200 bar en usos residenciales y de 350 hasta 700 bar para transporte. Los tanques de almacenamiento tiene grandes espesores de pared para aguantar esas presiones.

• El proceso de producción de hidrógeno por electrolisis requiere de una gran cantidad de energía.

• El catalizador que se utiliza en las pilas de combustible es platino y hace que se encarezca mucho su precio.

• El hidrógeno que se utiliza en las pilas debe ser de una gran pureza, >99,9999%, para evitar el envenenamiento del platino que actúa como catalizador.

## ¿CÓMO ES UNA PILA DE COMBUSTIBLE?

Las pilas de combustible pueden ser de distintos tipos aunque las más habituales son las pilas de membrana de electrolito polimérico (PEM).

